

Salesiarrak

La Congregación salesiana (la de los hijos de San Juan Bosco: 1815-1888), nacida en los años 1859-1862, ocupa un lugar importante y muy peculiar entre las iniciativas educativas de la Iglesia católica, tanto por el volumen de obras que ha generado y la extensión casi universal de su geografía, como por su especialización en la formación profesional y atención a la juventud obrera.

Asko izan dira Elizan XIX-XX. mendeetan (eta gutxi batzuk lehenagotik ere) hezkuntzan lan egin duten Kongregazioak, eta hauetako dezentehorrexetarako jaioak izan dira. Baina horrelakoen artean salesiarrena gertatu da Elkarte bereziki bizi eta emankorra, Europan, noski, baina baita Amerika edo Asian ere.

Hiri-auzo batetik mundura (1846...)

Italiako Piamonte-n, Torino inguruan, du lehen historia Kongregazio honek, izan ere, hiri hartatik hogeiren bat kilometrora dagoen Castelnovo-n jaio baitzen Giovanni Bosco bera, eta lehen apaiz-lanak Torinoko langile-auzo batean egin baitzuten.

1815ean jaioa, Italiak bere batasun politikoa egingo zuen garaian bizitzeko egokitu zitzaion, bilakaera horrek berarekin ekarri zituen gerra, gatazka sozio-politiko eta arazo ideologikoekin. Jakina denez, Aita Santuaren Eliz Estatu desagerpena ekarri zuten gertakari haiek, eta katolikoentzat kontzientzi arazo latzak. Hori dena bere osoan bizi izan zuen On Boscok (†1888).

Hala ere, Joan Bosco-ren buruan batez ere bestelako ardura egon zen bizirik: industriagintza medio, Torino hiriburuko auzoetan aterbe onik gabe eta galduta pilatzen ari zen landa-herrie-

tako gazteria langilearekiko ardura. Zer egin agerian zegoen utzikeria sozial haren aurrean? Nola lagundu, hezi eta ogibide itxuroso bat eman noraezean zebiltzan gazteei?

Apaiztu berria zela topo egin zuen egoera harekin (1846), eta hasteko, jolaserako bezala otoitzerako gazteak bere ingurura erakartzen ahalegindu zen. Laster eskolak eskainiko dizkie, non ikas izan zezaten, esku-lanean trebatzeko tailerrak, etab. Lan-prestakuntzarekin batera balio kristauak eskaintzen saiatu zen.

Langile eta ikasleekin urrats berriak eman zituen, elkarrekin bizitzen jarritako gazterik prestuenakapaiz eta erlijioso bizitzara gidatzean. Egiten ari zen lanagatik, bazituen On Bosco-k bere miresle babesleak, baina ez derrigor erlijio-zaleak. Hala ere, hauek legezko elkarte pribatu batean biltzeko aukera eman zioten (1858), eta politikan urak zerbait baretu ahala eta elkarriketa eta gogoeta luze baten ondoren lortu zuen, azkenik, Aita Santuaren onarpen osoa (1874).

On Bosco hil eta gutxira, kasik mila lagun ziren salesiarrak: 994 (1890), eta 123 herrialdeetan zeuden lanean. Gerora, gora egin du Elkar-teak: oraintsu, 2000. urtean, 17.014 lagun ziren, eta Institutu Erlijioso handienetakoa da gaur egun salesiarrena.



Salesiarrak Euskal Herrian (1897...)

Barakaldon izan zuten Euskal Herriko beren lehenengo Etxea salesiarrek (1897), hain zuten Bizkaian industriagintza gora zetorren unean, eta aldakuntza ekonomiko hark sortutako langileen munduari laguntzeko deituta. Ramon Zabalo salesiar urnietarra (1849-1932) izan zen fundazio berriko arduraduna. Estualdi ekonomikoaren ondorioz ezin izan zuen hark lanbide-heziketarako eskola aurrera atera lehenengo ahalegin hartan, baina Udalarekin lankidetzan (1899), pixkaka-pixkaka, modu bateko eta beste saioak egin ondoren Barakaldoko Ikastetxeak mende osoa bete du.

Hurrengo urratsak Iruñea (1927), Deustua (1938), Azkoitia (1938), Gurutzeta (1959), Errenteria (1960-1977), Urnieta (1964), Donostiako Intxaurren (1969) eta Gasteiz-en (1977) eman ziren, batzuetan Ikastetxe handiak eramateko (Errenterian, adibidez), bestetan Kongregazio-ko erlijioso-gaiak prestatzeko (Gasteiz), edo Parrokietan lan eginez (Intxaurren, Gasteiz, Errenteria). Gogoan dut oraindik nolako harri-duraz ikusi ahal izan nituen (1946) makineriaz inguratuta ikasle-langile gazteak Deustuko Ikastetxean, euskal probintzietan ereduakoa zen ikastetxe-lantegi hartan.

Bertako Probintzia erlijiosoaren barnean daude Burgos, Logroño eta Santanderko Etxeak ere, bakoitzean bi Etxerekin. Gaur egun salesiarrek gurean duten Probintzia 1961ean eratu zen bere horretan, eta Bilbo-Deustuan du bere Nagusi-Etxea.

Berrehunen bat salesiar dira Probintzian,

7.500en bat ikasleren ardura dute Euskal Herriko eta beste erbeste horietako Ikastetxeetan. Esan beharra dago, gainera, Kongregazioak gazteriaren inguruko elkarre eta ekimenak arretaz zaintzen dituela, betiere herritar laikoak lankide nahi dituelako, horretarako ikasle ohien laguntza ere sustatuz.

Euskal Herrian salesiarrek beren jatorrizko bokazioari heldu diote, kristau-heziketarekin batera lanbide-heziketan jardunez. Milaka gazte izan dira Deustua, Barakaldo, Errenteria edo Iruñean eskulanerako prestatu direnak. Egindako lan horren aitortza gisa, Nafarroako Urrezko Domina eman zien Gobernuak 2001ean.

Esan beharrik ez dago, XX. mendeko hamarkada luzetan eta, hain zuten, industrialak izan nahi zuten gure euskal herrialdeetan, gazteei eskulanerako trebakuntza errazteak izan duen garrantzia: neurri on batean, gure industri sarea ezingo zen indar berean garatu honelako ikastetxeek beren premiazko trebakuntzak eman ez balituzte.

Erlijioso salesiarren ondoan, mundu osoan bezala, Andre Maria Laguntzailearen Alabakegon dira Euskal Herrian. 2000. ean, 16.517 moja ziren Kongregazio horretakoak, eta bestetan bezala, hemen ere nesken hezkuntzari emanak aritu dira Barakaldon (1947; Ikastetxe berria 1986an). Intxaurren, Alegi, Gasteiz eta Iruñean zerbitzu ezberdinak eskainiz dihardute moja hauek, batez ere emakumeen mesedetan.

Joseba Intxausti

Galderak eta oharra: 610273580